



# Gipuzkoa COVID-19aren ondoren: Balantzea

Ira. 03 2021

Kod. G14-21

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa



**Edizioa**

2021

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 03 2021

**Kokalekua**

TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

**Hizkuntzak**

Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



# Azalpena

## Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta YouTube bidez emitituko da.

COVID-19k ekonomian, politikan eta gizartean gaur egun eta etorkizunean izaten dituen eraginak askotarikoak eta ugariak dira. Krisaldi honek erronka batzuk uzten dizkigu baina baita aukera asko ere. Gipuzkoak kapital soziala, esperientzia eta ezagutza ditu elkarrekin eredu ekonomiko eta sozial sendoagoa eraikitzeko krisaldi honi eta etorriko diren krisiei aurre egiteko.

Hori dela eta, COVID-19k Gipuzkoan utzi dituen ondorioak, ikasketak eta aukerak aztertzeko asmoarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Sinnergiak Soziala Innovation ikerketa taldearekin elkarlanean, "Gipuzkoa COVID-19aren ondoren: balantzea" izeneko uda ikastaroa antolatzen du.

## Helburuak

COVID-19k izan dituen ondorioak hainbat esparrutatik aztertzea.

COVID-19k utzi dizkigun ikasketei buruz hausnartzea.

COVID-19k Gipuzkoari etorkizunerako eskaitzen dizkion aukerak identifikatzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak




# Programa

2021-09-03

08:45 - 09:15	Registro / Erregistroa
09:15 - 09:45	Inaugurazio instituzionala <b>Markel Olano Arrese</b> DFG /GFA - Gipuzkoako diputatu nagusia / diputado general de Gipuzkoa <b>Eva Ferreira Garcia</b> UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea / rectora de la Universidad del País Vasco
09:45 - 10:45	“Conferencia Inaugural: El impacto de la COVID-19 / COVID-19aren eragina “ <b>Sami Nair</b> Universidad Pablo de Olavide - Centro Mediterráneo Andalús (CMA)
10:45 - 11:15	Atsedena
11:15 - 11:35	“Gipuzkoa tras la COVID-19: Transición Ecológica / Trantsizio Ekologikoa“ <b>José Ignacio Asensio Bazterra</b> Diputado de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas / Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako diputatua
11:35 - 11:55	“ Gipuzkoa tras la COVID-19: Competitividad sostenible / Lehiakortasun iraunkorra.“ <b>Jabier Larrañaga Garmendia</b> DFG/GFA - Diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural / Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko diputatua
11:55 - 12:15	“Gipuzkoa tras la COVID-19: Políticas sociales de transición / Trantsizioko gizarte-politikak“ <b>Maite Peña Lopez</b> DFG / GFA - Diputada de Políticas Sociales / Gizarte Politiketako diputatua
12:15 - 12:35	“Gipuzkoa tras la COVID-19: Impactos y Expectativas / Gipuzkoa COVID-19aren ondoren: Eraginak eta itzaropenak. “ <b>Eider Mendoza Larrañaga</b> DFG / GFA - Diputada de Gobernanza / Gobernantza diputatua
12:35 - 13:15	Mahai ingurua: “Puesta en común y debate / Bateratzea eta eztabaida“ <b>Jabier Larrañaga Garmendia</b> DFG / GFA - Diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural / Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko diputatua <b>Maite Peña Lopez</b> DFG / GFA - Diputada de Políticas Sociales / Gizarte Politiketako diputatua <b>José Ignacio Asensio Bazterra</b> DFG / GFA - Diputado de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas / Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako diputatua <b>Eider Mendoza Larrañaga</b> Diputada de Gobernanza / Gobernantza diputatua
13:15 - 14:00	“Conferencia de Cierre: Futuros Posibles: Agendas Compartidos y Prioridades / Etorkizun posibleak Agenda Partekatutak eta Lehentasunak“ <b>Sara Baliña</b> Subdirectora de la Oficina Nacional de Prospectiva y Estrategia /Prospektiba eta Estrategiako Bulego-nazionalen zuzendariordea
14:00 - 14:15	Itxiera <b>Xabier Barandiaran Irastorza</b> DFG / GFA - Director del Curso de Verano / Uda Ikastaroaren zuzendaria <b>Alfonso Unceta Satrústegui</b> Sinergiak Social Innovation (UPV/EHU) - Director del Curso



## Zuzendaritza



### **Xabier Barandiaran Irastorza**

Responsable de Estrategia de Etorkizuna Eraikiz

---

Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabineteko arduraduna. Soziologian doktorea. Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua. Ibilbide profesional eta politikoa: - Irakaslea. Gizarte eta Giza Zientziak. Deustuko Unibertsitatea (2011-gaur arte). - Ikertzaile bisitaria Oxford Unibertsitateko Kellog Collegen (2012-2014). - EITBko Administrazio Kontseiluko kidea. EITB. EAJ-PNV - TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren Administrazio Kontseiluko kidea. EAJ-PNV - Diputatu Nagusiaren Kabinete Burua. Gipuzkoako Foru Aldundia (2007-2011). EAJ-PNV - Garraio eta Obra Publikoen departamentuko kabinete burua. Eusko Jaurlaritza (2005-2007). EAJ-PNV - Irakaslea. Deustuko Unibertsitatea (1998-2005). - Formakuntza teknikaria. CONFEBASK (1997-1998). Beste organo edo entitateetan dituen kargu edo ordezkariak: - Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA-ko, TABAKALERAko Administrazio Kontseiluko kidea



### **Alfonso Unceta Satrustegui**

Sinergiak - UPV/EHU, Director / Zuzendaria

---

Soziologian doktorea eta Soziologian katedraduna da UPV/EHU. Bere ikerkuntza lanari esker, hirurogeitik gora ikerketa eta kanpo kontratutan parte hartu du. Gainera, hirurogeita hamar argitalpenetik gora egin ditu. Bere lan ildo nagusiak Gizarte Berrikuntza, Gobernantza eta Parte Hartzea eta Hezkuntza dira. 2004an Ikerketaren Euskoiker saria lortu zuen Giza eta Gizarte Zientzien arloan, bai eta Jesús María Leizaola saria ere. 2007tik 2013ra bitarte Berrikuntzaren eta Ezagutzaren Kudeaketa Masterraren zuzendari izan zen. Esperientzia handia du kudeaketa postuetan. Unibertsitateetako zuzendaria eta Hezkuntzako sailburuordea izan da Eusko Jaurlaritzan, bai eta Soziologia II Saileko zuzendaria eta Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultateko dekanoa ere. 2011z geroztik Euskampusen integratuta dagoen Sinergiak zentroko (UPV/EHU) zuzendaria da. Eta 2013ko irailaz geroztik Esperientzia Geletako (Bilbon) zuzendaria.

## Irakasleak




### **José Ignacio Asensio Bazterra**

Diputación Foral de Gipuzkoa

---

1966an jaio nintzen. Tolosarra eta euskalduna naiz. Ekonomia Zientziak eta Enpresaritza ikasketak egin nituen, eta master bat daukat enpresa eta finantza publikoen kudeaketan. Patxi Lopez lehendakariaren agintaldian, Eusko Trenbideetako zuzendari nagusi izan nintzen. Orobat, irakasle izan naiz Zaragozako Unibertsitatean, baina lan esperientzia ia osoa enpresa pribatuan izan dut. 2011tik zinegotzia naiz Tolosan Alderdi Sozialistarekin. Jarduera horrek aukera ematen dit nire herriaren egunerakoarekin harremana izateko. Egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatua naiz.



### **Sara Baliña**

---

A Coruña Unibertsitatean Ekonomian Lizentziatua eta EFAn Banka eta Finantzetan Masterra (Afi Taldea). Gaur egun, Prospektiba eta Estrategiako Bulego Nazionalako (Gobernuko Lehendakaritza) zuzendariordea da. Aurretik, BBVA Researchen (2014) ekonomialari nagusi gisa lan egin zuen eta Afiko Ekonomia eta Merkatu Analiaren arloko bazkide eta arduradun izan zen (2007).



### **Jabier Larrañaga Garmendia**

---

Kargua:Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko diputatua Ikasketak: Informatikan lizentziatua. MBA. Erakunde finantzieroen kudeaketa eta zuzendaritza KUTXA masterduna. Ibilbide profesionala: - 2000-2015 KUTXAn eta KUTXABANKen hainbat arduratan jardundakoa. - 2012-2015 Gipuzkoako Enpresen Bankuko zuzendaria. Cargo: Diputado Foral de Hacienda y Finanzas. Estudios: Licenciado en Informática. MBA. Master KUTXA en Gestión y Dirección de Entidades Financieras. Trayectoria profesional: - 2000-2015 diferentes responsabilidades en KUTXA y en KUTXABANK. - 2012-2015 Director de Banca de Empresas para Gipuzkoa.



## **Eider Mendoza Larrañaga**

---

Gobernantzako diputatua eta bozeramailea Enpresa Zientzietan lizentziatua Commerce Européenne de Bordeaux (Frantzia), Nazioarteko merkataritzan espezializatzea. Ibilbide profesionala eta politikoa □ Irungo nazioarteko logistika/garraio enpresa batean lan egin nuen 2001 arte. □ Legebiltzarkidea Gasteizen 2001-2011. Taldeko koordinatzailea eta bozeramailea Gizarte-politikak. □ Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea 2011-2015 bitartean. Talde politikoaren koordinatzailea eta Batzar Nagusietako presidenteordea. □ 2015-2019: Batzar Nagusietako presidentea. □ Hainbat komunikabidetan, idatzitan eta telebistan kolaboratzailea.



## **Sami Nair**

---

Político y pensador francés de origen argelino que ha destacado como uno de los más brillantes especialistas europeos en cuestiones de inmigración y como asesor del gobierno francés para las políticas relacionadas con estos movimientos de población. Doctor en Filosofía y en Letras y Ciencias Humanas por la Universidad de la Soborna. Actualmente, es catedrático de Ciencias Políticas y director del Centro Mediterráneo Andaluz de la Universidad Pablo de Olavide de Sevilla. Además de su labor intelectual y política, Naïr ha desarrollado una intensa actividad docente, que le ha llevado a impartir cursos en distintas universidades de Estados Unidos, Latinoamérica, Europa y el Magreb. En España ha dirigido, desde comienzos de 1996, la primera cátedra de estudios mediterráneos, fundada en la Universidad de Valencia. Ha escrito numerosos artículos de filosofía, economía, crítica literaria y ciencias políticas en las principales revistas académicas de Francia y de otros países.



## **Maite Peña Lopez**

---

Gizarte Politikako Foru Diputatua. Zuzenbidean lizentziatua. Ibilbide profesional eta politikoa: - 2000. urte ezkerotik abokatu bezala lanean. - Udal-taldearen bozeramailea. Errenteriako udala (2003-gaurdaino). - Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea. Bertan Gizarte Politikako batzordearen bozeramailea. (2007-2011). - Gipuzko Buru Batzarreko burukidea (2012-2015). - Eusko Jaurlaritzako kontsumo bitartekaritza zerbitzuko kontsumo arbitroa (2002- 2005). - Errenteriako Jesusen Bihotza udal-egoitzako patronatuko lehendakaria. - Errenteriako Gizarte zerbitzuetako lehendakaria (2007-2011). Beste organo edo entitateetan dituen kargu edo ordezkariak: - Arreta Soziosanitarioko Euskal

Kontseiluko Titularra. - Berdintasunaren Aldeko EMAKUNDE Sariaren Epaimahaiko titularra. - Boluntariotzaren Euskal kontseiluko titularra. - Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoko titularra. - Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko titularra. - Eusko Jaurlaritzako Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeko



# Matrikula prezioak

**AURREZ AURRE**

**2021-09-03 ARTE**

MATRIKULA DOAN

0 EUR

**ONLINE ZUZENEAN**

**2021-09-03 ARTE**

MATRIKULA DOAN

0 EUR

# **Kokalekoa**

## **TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa**

Andre zigarrogileak plaza, 1 20012. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa